


## Patxi Coira

1962, Donostia (Herrera auzokoa). Maisutzan ikasia eta Zarauzko Haur Eskolako hezitzailea izana. Bertan bizi da azken hogeitun urteetan. Eskolako lana eszedentzian utzia, politikagintzan ari da buru-belarri. Ezker Batuko (EB) kidea da: Zarauzko udalean zinegotzia eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkidea. Ezkerrekoa izatea du ezaugarri. Herri mailako politikan burutzen duen lanean ezkerreko militantearen zigilua ezartzen gogoz saiatzen den inpresioa eman digu elkarrizketan.

**MIKEL ASURMENDI**

Argazkiak: Dani Blanco



# «Diputazioak eskuindarragoak dira Jaurlaritza baino»

Zarauzko udalean EBko zinegotzi bakarra da gure solaskidea. Gipuzkoako Batzar Nagusietan berriz, alderdiko beste bi kideekin ari da. Bietan oposizioan dihardu, bistan da. Udal politikaz abiatu dugu elkarrizketa, diputazioaren aferaz amaitzeko.

Udaleko hirigintza, pertsona eta ekonomia batzordean diharduzu. Egiguzu legealdiari buruzko balorazioa.

Oposizio lana oso gogorra da udalean. EB ia ezkerreko alderdi bakarra da. PSE-EEko bi zinegotzi ari dira, baina bizkartzainekin segitzen dute -PPk ere bi ditu-. Egoera hau ez da egokia, noski. Halaber, ezker abertzalearen hautagaiak kanpoan geratu ziren. EB Alderdien Legearen aurka dago, egoera ez da batere demokratikoa. Udal gober-

nua berriz -EA-EAJk osatua- maiz prepotente xamar aritu da legealdian, gehiengo osoa du eta.

**Zein izan da zure taldearen egitasmoa eta ekarpena?**

Bi proposamen zehatz eta egokiak planteatu genituen 2003an: hirigintzaz eta herritarren mugikortasunaz. Hirigintza arloan Itsasmendi ondoko lurzoruetan 500 etxebizitza babestuak egitea proposatu genuen. Lur gehiena udalarena zenez egingarri ikusi genuen. Proiektua ez zen onartu, aurrera egin izanez gero hobeto ginateke, dudarik gabe. Aitzitik, udalak parke industrialaren proiektua gauzatu du eta ez da egokia, lekunea erresidentziala delako. Mugikortasunari dagokionez, oinezkoen eremua zabaltzeko proiektua aur-

keztu genuen, barnealdea hobeto antolatzeko nahiz bidegorriaren proiektu integrala egiteko. Plangintza bat eratu da baina oraindik emaitza gutxi ikusi dugu. Hirigintzan gure proposamenak sozializatzen ari gara, nahiz eta udal gobernuak ez dituen onartu nahi. Bestalde, arau ordezkatzaila berritzen ari gara eta proposamen zehatzak egin ditugu: Asti eta Talamendi gunek kontserbatzeko eta hirigintza sostengarri baten aldeko proposamenak egin ditugu. San Pelaio inguruko orubetan alokatzeko etxebizitza sozialak egiteko plan bat proposatu genuen eta oposizio osoaren babesa jaso zuen, gazteentzako apartamentu babestuak egin behar ziren. Hala ere, gobernuak gehiengo osoa du eta gure proposamena ezabatu du.



Gaztetxearen inguruan hainbat gorabehera izan da. Azaldu iezaguzu gertatua.

Gaztetxearen inguruan lehenago aipatutako prepotentziaren erakustaldi bat izan zen. Guk Gaztetxearen inguruan behar bat zegoela ikusi genuen, Xakela kolektiboko gazteek proposamen zehatza zeukatela. Gazteen ekin-tzak ondo iruditu zitzaizkigun eta soluziobidea negoziazio bidez gauzatzea zegoela, baita fabrika okupatuaren jabearekin akordioa lortzeko aukera zegoela ere. Hori proposatu genuen eta udalak iranez erantzun zigun. Denborak azkenik arrazoia eman digu. Gazteak eta udala akordio batera iritsi ziren, baita EBk proposatutako negoziazioaren aldeko jarrera egokiena zela ikusi ere.

**Gipuzkoako Batzar Nagusietara etorri, nola baloratzen duzu EAJ-EA koalizioak daraman politika, orokorrean?**

Diputazioetan –Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian– EAJk ez du Jaurilaritzan bezala jokutzen. Jaurilaritzan neurri progresistagoak hartu ohi dira, hemen berriz, jarrera neoliberelek indar gehiago dute. Diputazioak eskuindarragoak dira Jaurilaritza baino. Jarrera hori Pasaiako portuaren nahiz errauskailuen proiektuetan ageri da. Eusko Legebiltzarrean Eus-

kal Zerbitzu Sozialerako Legea egitear dago. Eztabaidatu ondoren Diputazioaren jarrera zein den ikusiko dugu. Gure asmoa Diputazioaren jarreran eragitea da ezkerretik legea aurrerazalea izan dadin.

**Ezkerretik elkarteen zerga igotzeko aukera galdu izana kritikatu duzue.**

Jakina, ezkerrek ez du zerga mota horiek gutxitzea onartu behar. Gu zerga hori igotzen saiatu gara, bestela nondik aterako ditugu ongizateko gizartearen eredia sustatzeko baliabideak? Gipuzkoako enpresen irabaziak izugarriak dira, bankuenak eta enpresa handienak bereziki.

**“2003an EAko Luis Mari Oiarbide diputatuak debatea itxita zegoela esan zuen eta errauskailua zela irtenbidea.**

**Begira nola gauden gaur egun”**

**Politika neoliberalera ere kritikatu duzue. Azaldu iezaguzu, zer dira mezenazgoen etekinak?**

Mezenazgoaren kasuetan diru laguntzak handitzen ari dira. Gipuzkoan Fundazio mordo dago. Hauek, adibidez, museoak edo kirolean hainbat ekimen eta proiektu eratzen dituzte. Mezenazgoek ekimen horiek laguntzen dituzte eta zerga aitorpenean desgrabazioa lortzen dute. Foru Aldundiak ez du etekinen dirua jasotzen, hobeto zehaztu beharko luke diru kobratze modua. Gainera, joera hori nekazaritza alorrean zabaltzen ari da. Guk mezenazgoak ondo daudela

diogu baldin eta gizarte mailako kreditu zehatzetara bideratzen badira. Adibidez, Onkologikoa berritzeko mezenazgoen parte-hartzea ondo dago.

**Zaborren errausketaren gaiak zer esana ematen du bestalde. Zertan da afera?**

Pentsa, 2003an EAko Luis Mari Oiarbide diputatuak debatea itxita zegoela esan zuen eta errauskailua zela irtenbidea. Begira nola gauden gaur egun. Txingudin aurreikusitako lehen proiektua, ez zuen zentzurik baina aurrera doa. San Markos mankomunitateak bestalde errauskailua Urnietan jarriko zuela esan zuen, baina herritarrek atzera bota zuten asmoa. Donostiako Aritzetan jarri behar zuten, udala kontra agertu zen. Gero Zestoan jarriko ote zen: %90ak ezetz esan zuen erreferendumean. Inkestak egin dira Aldundiaren eskutik eta Gipuzkoako gizarteak garbi dio ez duela errauskailurik nahi.

**Zein da soluzioa?**

Errausketa soluzio industrialia da, joan den mendeko irtenbidea. Egungo ingurumen gaiak soluzionatzeko, ezin da irtenbide hori eman gizartearen babesa eta eztabaida gauzatu gabe. Eta irtenbideak ez du soilik teknikoa izan behar, irtenbideak etikoa ere izan behar du. Gizartea kontuan hartu behar dugu. Herritarren Plataforma sortu berri da, plan alternatibo bat eratu dute eta irtenbide idatzia dago. Irtenbide asko dago baina gure zaborra erretzearekin ez da arazoa kontontzen. Erretzean, ikusi ez arren, kea atmosferara doa. Hondakina hor da, ez da desagertzen, eraldatzen dugu. Materia eraldatu behar da erreziklatzearen nahiz mekanizatzearen bidez, berriz ere erabiltzeko. Bilketa selekti-

**Argitalpen honen edizioan lankide:**

 **k u t x a**

boa bultzatu behar dugu, erreziklatu eta inertizatu behar dugu.

**Zer da inertizatzea?**

Zabortegetan botatzen den zaborra bizirik egoten da. Arazoa hori da, fermentatu gabe dago, gordinik. Gordinik egotea printzipioz debekatuta dago. San Markosen (Errenteriako zabortegeta) gordinik botatzen da ordea, zaborra bizirik dago, hortik kiratsa. Hondakin horiek inertizatu edo bizigabetu beharko lirateke. Sistema piloa dago. Diputazioa eta Donostiako Udalaren ordezkariak bi Italiako ereduak ikustera joan dira berriki. Italian errausketaren alternatibak lantzen ari omen dira. Kontua da, harrigarria behintzat, 2003 urtean Oiarbide diputatuari errausketa zela irtenbidea entzun geniola. Beraz, zertan ari dira Italiara joaten 2006an eta Gipuzkoako gehiengoaren ezetzarekin, eta inongo irtenbiderik gauzatu gabe?

**Prentsan Donostiako Udala (Elorza buru) eta Foru Aldundia (G. de Txabarri buru) akordio batera iritsi zirela zabaldu zen.**

“Pasaiaiko eskualdearen garapena izoztuta dago Aldundiaren helburu nagusia kanpoko Superportua ezartzea delako”

Bai, berauek kafea elkarrekin maiz hartzen dutela diote... (irriak), baina ez du ematen akordio batera iritsiko zirenik, orain Italiara doazelako eta bakoitza bere ordezkariarekin. Prentsak dioenez Odon Elorza prest omen dago Belartza inguruan lurra eskaintzeko baina biometanizazio planta bat ezartzeko, ez errauskailua.

**Gipuzkoako beste arazo bat errepide-tako kolapsoak dira.**

Azken 20 urtetan errepideetan inbertitu den diru mordo trenbidean inbertitu izan balitz, egun Gipuzkoan, eta oro har Euskal Herrian, azpiegitura sare egokiago bat izango genuke bai garraio bai pertsonentzako.

Zoritzarrez, Gipuzkoan –Europar bezala– errepideak zabaldu eta ugartzeko jarrera nagusitu da. Argi dago: errepide gehiago egiteak auto eta kamioi gehiago dakar, eta errepideak kolapsatzen direnean hiriak ere bai. Orain, bestelako azpiegituren garatu beharraz pentsatzen hasi gara, halabeharrez. Trena, adibidez.

**Trena etorri badator, AHT delakoa baina. Jaurlaritzak eta Madrilgo Gobernuak aurre-akordioa sinatu dute.**

EBkook AHTren –Y delakoa– ordeztu proiektua aldarrikatu dugu. Ibilbidea kontuan hartzeaz gain, trenaren zama kontuan hartu behar dela diogu. Hau da, kontainerrak eramateko trena izan behar luke, trenaren abiadura gutxitu beharko litzateke. Guk AHTren

proiektuan partaidetza soziala eskatzen dugu, ingurumenari buruzko legea gainditu beharko du AHTk. Gainera Ezker Batuaren proposamena merkeagoa eta sozialagoa da.

**Bi gai azkenik: Hondarribiko aireportuaren luzapena aipatu da berriz ere.**

Diputazioaren azken burutazioa Hondarribiko aireportua itsas aldera luzatzea da. Hendaiako Kotte Ezenarro alkatea haserre azaldu da. Noski, ez dio aireportuaren pista luzatzen utziko. Hendaiako beharrak kontuan hartuko ditu, gainera, Iparraldeko asmoak Miarritzeko aireportuari begira daudelarik. Orain gutxi Irungo Mendelu auzo aldera luzatu nahi zuten, PP horren alde zen duela urtebete eta EAJ kontra. Ez bata ez besteak ez dute zentzurik.

**Pasaiaiko itsas portuaz zer diozu?**

Jaizkibel mendiaren eta kostaren txikizioa izango litzateke. Gainera, kanpo aldeko Superportua egiteak geroari begira bi zentral termikoa egitea eskatuko luke, ingurumena areago zikintzea ekarriko lukeena. Gure proposamenak Pasaiaiko eskualdea eta inguruko auzokoan berritzea eskatzen du, berauetan lanpostuak sortuko dituzten enpresak eraikitzea. Esaterako, Valentzian Museo de las Ciencias y de las Artes delakoa egin da kanpoaldean. Herrian ere hori egin liteke. Zoritzarrez Gipuzkoako Diputazioaren politika Donostiako erdialdean inbertitzea da: Donostiako Aquariumak Pasaian egon beharko luke, bakailoaren historia eta itsasoarekiko harremana Pasaian dago. Aquariuma handitzean Urgull mendiari tokia jaten ari zaio, eta Pasaian badago toki nahikoa. Beste adibide batzuk: Santa Teresa eta San Telmo museoak, Tabakalera... Batzar Nagusietako eraikin berria Miramonen egiten ari da. Inbertsio handi eta erakargarri gutxiak Donostiako erdian egiten dira. Pasaia Donostia ondoan dago, eskualde horrek begirune gehiago behar luke. Ez da zaila, bai beharrezkoa ordea. Pasaiaiko eskualdearen garapena geldotuta dago eta etorkizuna izoztuta Aldundiaren helburu nagusia kanpoko Superportua eta eremu intermodalak ezartzea delako, eta hau ezin da onartu. ■



“Azken 20 urtetan errepideetan inbertitu den diru mordo trenbidean inbertitu izan balitz, gaur egun Gipuzkoan azpiegitura sare egokiago bat izango genuke”.